

{ koaderno } Nerea Ibarzabal Salegi

Bizitzaren atea

Beste bat joan da, Joxan Artze oraingoan. Ez dakit zilegitasunik dudan berari buruz idazteko –zilegitasunik beharko balitz idazteko–, irudipena baitut askotan mundualdia konpartitu izana ez dela aski, belaunaldia dela kontua.

Horregatik erdi biluzik –edo gutxi jantzita– harripatu izan naute Ez Dok Amairuko kideen heriotzek, zer sentitzen dudan ez dakidala; agur esatera behartuta, ganoraz “kaixo” esateko astirik eman ez didanean. Kantuak bukatuta iritsi zaizkigu guri, ereserki bihurtuta, autoretzak lausotuta “kantu herrikioen” zaku erraldoian. Gurasoen kotxeko kaseteek iraun zuten artean ikasi genituen euskaldun txukun izateko jakin beharrekoak, beraien emozioak liluratuta, ez hainbeste kantuak zioenak. Lete, Laboa... ez nituen inoiz kalean gurutzatu, ez Durangoko Azokan standen batean ikusi, anekdotarik ez beraiekin. Pezetarekin gertatu zitzaidan bezala, bakoitzaren balioa ulertzen hasi nintzenerako joan ziren.

Eta halaxe izan da Artze-ekin ere. Berririo gertatu-ko ez diren gauzek dakarten nostalgiarekin eta erruduntasun puntu batekin jaso nuen berria, berari buruz jakin beharko nukeenaren erdia jakiteagatik soilik. Adibidez, “Txoria txori” poemaren jarraipena ezezaguna zen niretzat GARAK argitaratu zuenera arte joan den asteko albistean. “Urruntzen ikustearen saminak ni poztu behar, txoria txori dudalako maite (...)”. Mugikorreko oharren blokean idatzi eta gorde nuen nire deskubrimendu *post mortem*-a –*Oharra: *Post mortem*-noak. Etorkizunean garatzeko kontzeptua–.

Ostiralean etxera iritsi bezain pronto apalak arakatzen hasi nintzen, etxe aldaketaren batean galduko ote zitzaidan beldurrez. Baina hantxe zegoen, 18 urterekin eta egun arraro batean Bilbon erosi nuen

“Bizitzaren atea dukegu heriotza” poema liburua. Ez nuen zehazki oroitzen zergatik, baina banekien diseinuagatik hainbeste erakarri ninduen liburu marroixka hura ez nuela irakurri azkenean. Bost urte beranduago eskutan hartzean oroitu dut zergatik: liburua itxita dago; bai, itxita. Inprentaren akatsen bat medio, orrialdeak ertzetatik elkarri itsatsita daude eta banaka askatu behar dira artaziekin edo, orri guztiak irakurri ahal izateko. Egun arraro hartan ez nuen gogorik izango agian dendara itzuli eta liburua aldatzeko, edo beharbada propio egindako inprimaketa bereziren bat zela pentsatuko nuen.

Kontua da orduko hartan bere horretan utzi nuela, onartu egin nuela liburu hark –edo Artzek, edo heriotzaren gaiak– ez zizkidala besoak zabaltu nahi,

Poeta baten diseizioa praktikatzeko prest, astiro, orrialde guztiak askatu nizkion, banan-banan, ttakun-ttakun, eta ebaki bakoitzetik hegan atera ziren bele beltzak, liliak, ama, begiak, maitasuna, pertsona

oraindik ez zelako unea akaso, edo nire patua delako, paradoxikoki, autore denen bizitzan hil ondoren murgiltzea eta ez lehenago. Bizitzaren atea dukegu heriotza, hortik etorriko da agian.

Irudikatuko duzue ba, nire sukaldeko mahaia, gainean liburua eta parean ni, artaziak hartuta joan den larunbat goizean. Poeta baten diseizioa praktikatzeko prest. Astiro, orrialde guztiak askatu nizkion, banan-banan, ttakun-ttakun, eta ebaki bakoitzetik hegan atera ziren bele beltzak, liliak, ama, begiak, maitasuna, pertsona.

Biderik laburrena, bizitza oso bat. Eta eskerrak bizitza hori ezagutzeko ate gehiago utzi dizkiguzun zabalik, Artze! •